

EUSKARA IKASTAROAK

2007/2008 IKASTURTEA OTSAIL-EKAINA

EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

Argibide gehiago:

- EHAA: 2007ko azaroaren 8koa
- Saitetako zerbitzu zuzendaritzetan
- HAEEko Euskalduntze Zerbitzuan
- Internet: www.ivap.euskadi.net (*euskara>euskara ikastaroak*)
- Eusko Jaurlaritzako intranet-ean (www.ivap.jakina).

1.- LANORDUETAKO IKASTAROAK

IVAPek osatutako taldeetan

Administrazioiko langileekin osatutako taldeek honako egutegi eta ordutegiak izango dituzte:

Bost orduko ikastaroak

Tokia	Ordutegia	Egutegia
Bilbo/Donostia	8:00-14:00	otsailak 11
Gasteiz	8:30-14:30	ekainak 20

2 orduko ikastaroak (soilik ikastaro trinko batetik aldatzen diren ikasleentzat)

	Tokia	Ordutegia	Egutegia
Goizez	Bilbo Donostia Gasteiz	8:00-10:00	otsailak 11 maiatzak 30
Arratsaldez	Bilbo / Donostia	15:30-17:30	otsailak 11 maiatzak 29
	Gasteiz	14:40-16:40	

Barnetegietan

Zornotzako barnetegian eta Lazkaoko Maizpide euskaltegian egin ahal izango dira. Egutegi hauek izango dira:

Barnetegia	Egutegia
Maizpide	otsailak 4 – ekainak 20
Zornotza	otsailak 11 – ekainak 27

Gainontzeko taldeetan

Ikaslea matrikula orriaren bidez eskolatzen bada, **euskaltegiaren ordutegia eta egutegia** errespetatu beharko ditu.

Nork har dezake parte ikastaroetan?

Administrazio Orokorreko langileek har dezakete parte, indarrean dauden lehentasun irizpideen arabera.

Nola egin eskaerak

Eskaerak egiteko bi bide hauek erabil daitezke:

1. Paperezko eskabideak. Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude: www.ivap.euskadi.net (*euskara>euskara ikastaroak>inprimakiak*)

Eskatzaileak inprimakia bete eta norberaren zerbitzu zuzendariari bidali behar dio, epe barruan.

2. Eskabide telematikoak. Eskabideok bakoitzaren ordenagailutik bete ahal izango dira ondorengo helbidean: www.ivap.jakina. Eskatzaileak lehenik XL-Nets segurtasuneko sistemaren bitartez identifikatu behar du bere burua.

Eskatzeko epea

Azaroaren 9tik 25era bitartean.

Ikastaroetara joateko baimena eta ordu-kreditua

Baimena eskatzailearen saileko zerbitzu zuzendaritzak ematen du.

Lanorduetako ikastaroei dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2004ko apirilaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituena; EHAA: 2004-5-7; 85. zk.a).

Ondorioz, euskara ikastaroa lanorduetan hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea. Ordu-kreditua ikastaroa aurrera doala agortzen bada, langileak ikastaroa bukatu arte jarraitu ahal izango du.

Ordu-kreditua agortu ondoren, dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditu ez duen langileari ez zaio onartuko lanorduetan euskara ikasteko eskabide gehiago, harik eta gainditu beharreko hizkuntza-eskakizuna lortu arte (betiere aldeko ordu-kreditua izanez gero).

Mailaketa probak

IVAPek eskatzailearen mailaren berririk ez badu, mailaketa proba egitera deituko du. Proba egitera administrazioko taldeetan sar daitezkeen langileak deituko dira bakarrik, betiere eskatu duten tokia eta ordutegia kontuan izanda.

1. urratsean hasi behar duen eskatzaileak ez du mailaketa probarik egin behar izango.

IVAPek mailaketa probak urtarilaren bigarren astean egitea aurreikusten du.

Proba egitera deitua izan den langilea **nahitaez aurkeztu** behar da proba egitera. IVAPek aurkeztu ez den langilearen eskaera **bazter utziko** du.

Taldeak antolatzea

IVAPek, erakunde desberdinetako eskaera guztiak jaso eta maila zehaztu ondoren, administrazioko langilez osatutako taldeak antolatuko ditu; horretarako, maila, toki eta ordutegi bereko ikasleak bilduko ditu.

Administrazioko langilez osatutako taldeetan eskolatzerik ez denean, IVAPek matrikula orria helaraziko dio eskatzaileari.

Matrikula orria

Matrikula orriaren bidez lanorduetan egin beharreko ikastaroak baldintza hauek bete behar ditu:

- 1) Ikastaroak gutxienez **asteko 8 orduko** iraupena izan behar du. Alfabetatzeko eta EGAKo ikastaroak, dituzten berezitasunengatik, ordu gutxiagokoak izan daitezke.

- 2) Ikastaroak otsailetik ekainera bitartekoak izan behar dira. Barnetegiko eta egunean 8 orduko ikastaroen kasuan, ikastaroek gutxienez lauhileko iraupena izan behar dute.
- 3) Matrikula orriaren bidez egingo den ikastaroa HABEk homologatua izan behar da.
- 4) Matrikula orriaren bidez ezin izango da autoikaskuntza ikastarorik egin.

Ezinbestekoa izango da matrikula orria euskaltegian aurkeztuta izatea ikastaroa hasten denerako.

Eskolara joatea eta asistentziaren jarraipena

Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskolan.

Euskara ikastaroen aprobeitxamendua bermatu eta horretarako langileen eskura jartzen diren giza-eta diru-baliabideak optimizatu ahal izateko asmoz, euskara ikastaroetan diharduten ikasleek gutxienerako asistentzia izan beharko dute ikastaroetan.

Horregatik, arau orokor modura honako neurri hau ezartzen da: ikasleek **gutxienez %80ko asistentzia** izan beharko dute diharduten ikastaroan. Ondorioz, ikaslearen hutsegiteek ikastaro osoaren %20 gainditzen duenetik aurrera, IVAPek baja eman ahal izango dio eta honek utzi egin beharko du ikastaroa.

Ondorio guztietarako ikastegia lantokia da langilearentzat. Beraz, eskolatze eta puntualtasun huts guztiak zerbitzu zuzendaritzan zuritu beharko dira.

2.- LANORDUZ KANPOKO IKASTAROAK

Ikaslea matrikula orriaren bidez eskolatzen bada, **euskaltegiaren ordutegia eta egutegia** errespetatu beharko ditu.

Nork har dezake parte ikastaroetan?

Administrazio Orokorreko langileek har dezakete parte, indarrean dauden lehentasun irizpideen arabera.

Nola egin eskaerak

Eskaerak egiteko bi bide hauek erabil daitezke:

1. **Paperezko eskabideak.** Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude: www.ivap.euskadi.net (*euskara>euskara ikastaroak>inprimakiak*).

Inprimakia bete eta IVAPera bidali behar da.

2. **Eskabide telematikoak.** Eskabideok bakoitzaren ordenagailutik bete ahal izango dira ondorengo helbidean: **www.ivap.jakina**.

Eskatzaileak lehenik XL-Nets segurtasuneko sistemaren bidez identifikatu behar du bere burua.

Eskatzeko epea

Abenduaren 3tik 21era bitartean.

Matrikula orriari buruz

Matrikula orriaren bidez lanorduz kanpo egingo den ikastaroak baldintza hauek bete behar ditu:

1. Ikastaroak gutxienez **asteko 5 orduko** iraupena izan behar du. Alfabetatzeko eta EGAKo ikastaroak, dituzten berezitasunengatik, ordu gutxiagokoak izan daitezke.
2. Ikastaroak otsailetik ekainera bitartekoak izan behar dira. Barnetegiko eta egunean 5 orduko ikastaroen kasuan, ikastaroek gutxienez lauhileko iraupena izan behar dute.
3. Matrikula orriaren bidez egingo den ikastaroa HABEk homologatua izan behar da.
4. Matrikula orriaren bidez ezin izango da autoikaskuntza ikastarorik egin.

Ezinbestekoa izango da matrikula orria euskaltegian aurkeztuta izatea ikastaroa hasten denerako.

Ikastaroen aprobetxamendua

IVAPek nahikotzat jotzen du aprobetxamendua ikastaro osoko asistentzia gutxienez %80koa izan bada.

Sail bakoitzak eskura izango du bere langileen asistentziari eta ebaluazioei buruzko informazioa IVAPen aplikazio informatikoan. Sail bakoitzari dagokio balioespena egitea eta, IVAPen proposamenak kontuan hartuta, ongien irizitako erabakiak hartzea.

Agerturiko irizpideok osatzen dute aprobetxamendu maila, Administrazioaren zerbitzupean diharduten funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen Hitzarmeneko 10. artikuluan zehazten den baimena eman ahal izateko exijitu beharrekoa.

3.- ESKOLETARA JOATEARI UZTEA

Eskoletan hasi ondoren ikastaroa behin betiko uztea erabakitzen badu, ikasleak **horren berri eman behar** die bere prestakuntzaz arduratzen diren eragileei:

- **Euskaltegiari**, irakasleari esanda.
- **Bere erakundeari**, dagokion pertsonaleko arduradunari jakinarazita.
- **IVAPi**: Horretarako, “jakinarazpena: euskarazko eskoletara joateari uztea” izeneko inprimakia bete eta, bere pertsonaleko arduradunak izenpetuta, IVAPera bidali behar du.

Kontuan har ezazue, eskola-uztea lehenbailehen jakinarazi behar dela, eragina baitu ordu-kredituen kontatze-sisteman. Hau da, eskola-uztea jakinarazten ez bada, jarraitzen dugu hasierako ordu-kredituari orduak kentzen .

Inprimakia eskura egongo da honako helbide elektroniko honetan:

www.ivap.euskadi.net

(Ezkerreko zutabea: euskara > euskara ikastaroak > inprimakiak)

4.- DATUEN BABESA: LEGE OHARRA

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu eta sail bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio. Halaber, IVAPek sailen eskura jarriko ditu lanorduetako ikasleen aprobetxamenduari buruzko txostenak.

Ebazpen honen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

Deialdi honetara biltzen diren langileek onartu egiten dute ebazpenaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien sailei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute, era berean, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.). Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari –HABE-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Ikasleei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako “Funtzionarioak euskalduntzea” izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.